

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Irargarkiak

### IDAZKARITZA NAGUSIA

**Foru Gobernu Kontseiluak 2021eko azaroaren 16ko ohiko bilkuran onartutako ebazpen laburpena**

– **Zerga premiazko araugintzako dekretua:**

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 8/2021 Zerga premiazko araugintzako dekretua, azaroaren 16koa. Aldatzea hiri lurren balio gehikuntzaren gaineko zergaren araudia, Konstituzio Auzitegiaren 2021eko urriaren 26ko epaira egokitzeko.

– **Erabakiak:**

DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 678/2021 Erabakia, azaroaren 16koa. Berritzea Arabako Foru Aldundiak Transferentzien Bitariko Batzordean duen ordezkartza.

Foru Gobernu Kontseiluaren 679/2021 Erabakia, azaroaren 16koa. Onestea Arabako Lurralde Historikoan Euskaraldia proiekturako zuzeneko dirulaguntza bat ematea eta Euskaltzaleen Topagunea Federazioarekin dagokion lankidetzat hitzarmena sinatzea.

EKONOMIA GARAPENAREN, BERRIKUNTZAREN ETA  
DEMOGRAFIA ERRONKAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 680/2021 Erabakia, azaroaren 16koa. Onestea zuzeneko dirulaguntza bat ematea CIC energiGUNE Fundazioari eta horrekin loturiko baldintzak eta konpromisoak ezartzen dituen hitzarmena sinatzea (Egoera solidoko bateriak).

Foru Gobernu Kontseiluaren 681/2021 Erabakia, azaroaren 16koa. Onestea Araba Garapen Agentzia SARI ekarpena egitea, Arabako Parke Teknologikoaren 2021eko kapital sozialaren gehikuntzan parte har dezan.

ENPLEGU, MERKATARITZA ETATURISMO SUSTAPENAREN  
ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 682/2021 Erabakia, azaroaren 16koa. Onestea hainbat enpresari adjudikatzea ibilgailuetarako eta makinatarako jatorrizko ordezkotzako piezak dituen 10 loteren horniketara, ingurumen inpaktu txikiagoarekin. Aurrekontua, gehienez: 272.000 euro; gauzatze epea: 2 urte.

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 683/2021 Erabakia, azaroaren 16koa. Behin betiko onestea Arratzua-Ubarrundiako udalerriko ondasun higiezinaren gaineko zergari lotutako lurzoruaren eta hiri ondasun higiezinaren balioztapen txostena.

Foru Gobernu Kontseiluaren 684/2021 Erabakia, azaroaren 16koa. Onespina ematea Kontuhartzaitza eta Kontrol Zerbitzuaren eragozpen txostenak aurkeztu zaizkien hainbat jarduketa baliozkotzeari.

Foru Gobernu Kontseiluaren 685/2021 Erabakia, azaroaren 16koa. Onestea 153/2021 kreditu transferentziaren espedienteak, 749.987,58 euroko zenbatekoaz, funtsez hornitzeko "AGA: Arabako Teknologia Elkartegia handitzea" izeneko partida, Ekonomia Garapenaren, Berrikuntzaren eta Demografia Erronkaren Sailak hala eskatuta.

Foru Gobernu Kontseiluaren 686/2021 Erabakia, azaroaren 16koa. Onestea Urbinan lursail bat erostea, Vasco-Navarro trenbideko Bide Berdearen trazaduraren zati izateko.

## LURRALDE OREKAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 687/2021 Erabakia, azaroaren 16koa. Onestea Zigoitiko Udalari "Bengolarra eraikinean, aldagelak handitu, igerilekuetako taberna-jatetxea eraldatu, erabilera askotarako gelak eraiki eta oztopo arkitektonikoak kentzeko" obrak egiteko emandako dirulaguntza errebokatzea.

Foru Gobernu Kontseiluaren 688/2021 Erabakia, azaroaren 16koa. Ezestea Zuiako Udalak Kontseiluaren maiatzaren 25eko 310/2021 Erabakiaren aurka, zeinaren bidez ebatzen baita obra txikiak egiteko 2021eko ekitaldiko laguntza deialdia, aurkeztutako aurretiazko errekerimendua.

Foru Gobernu Kontseiluaren 689/2021 Erabakia, azaroaren 16koa. Onestea estatuko gaikuntzako toki administrazioko funtzionarioentzat gordetako lanpostuak betetzeko 2021eko lehiaketa bateraturako deialdia.

Foru Gobernu Kontseiluaren 690/2021 Erabakia, azaroaren 16koa. Onestea udalen eta beste toki erakunde batzuen kudeaketa integrala egingo duen sistema informatiko bat erosteko eta haren mantentze lanak egiteko Aytos Soluciones Informáticas, SLU enpresarekin sinatutako kontratuaren likidazioa, eta bermeak itzultzea.

## BIDE AZPIEGITUREN ETA MUGIKORTASUNAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 691/2021 Erabakia, azaroaren 16koa. Onestea "A-3920 errepi-dea egokitzeko eta haren trazadura hobetzeko proiektua (Untzillako bidegurutzeta). Aramaioko udalerrian (Araba) A-3920 eta A-4021 errepideetan jarduketak egiteko proiektuaren 1. jarduketa, Gasteiz-Bilbo-Donostia AHLaren eraginak direla-eta", proiektuak eragindako ondasun eta eskubideen hasierako zerrenda zehatza eta banakatua, eta jendaurrean jartzeko izapidea egitea.

Foru Gobernu Kontseiluaren 692/2021 Erabakia, azaroaren 16koa. Onestea "Arabako Foru Sareko zenbait errepidetan legarra barreiatuz azaleko tratamendua emateko proiektua. 2021. urtea" proiektuaren azken ziurtagiria. Zenbatekoa: 433.175,85 euro, BEZa barne.

Foru Gobernu Kontseiluaren 693/2021 Erabakia, azaroaren 16koa. Onestea Berantevillako Administrazio Batzarrarekin hitzarmen bat sinatzea, A-3122 errepideko bide zatiak transferitzeko.

Foru Gobernu Kontseiluaren 694/2021 Erabakia, azaroaren 16koa. Onestea 86/000 finkak Kontseiluaren uztailaren 13ko 432/2021 Erabakiaren aurka jarritako berraztertze errekurtsoa. Erabaki haren bidez, onespena eman zitzaion "A-2128 errepidearen trazadura hobetzeko eta plataforma zabaltzeko eraikuntza proiektuak" eragindako ondasun eta eskubideen behin betiko zerrendari.

Foru Gobernu Kontseiluaren 695/2021 Erabakia, azaroaren 16koa. Onestea 2022rako luzatzea bidaiarien erabilera orokorreko errepideko garraio erregularraren emakida hauei aplikagarri zaizkien bidaiarien tarifak: AR-01 Araba erdialdea, AR-02 Aiara, AR-03 Arabako Errioxa eta C-01 Miranda/Gasteiz/Durango.

## GIZARTE POLITIKEN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 696/2021 Erabakia, azaroaren 16koa. Onespena ematea Gasteizko Udalari ordaintzeari Gizarte Zerbitzuen Sailerako Aparteko Funtsa banatzearen zenbatekoa.

Foru Gobernu Kontseiluaren 697/2021 Erabakia, azaroaren 16koa. Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko zentroetan komunikazio sistemak hornitu, instalatu, abian jarri eta mantentze lanak egiteko kontratazio espedientea Gotor comunicaciones SA enpresari esleitzea, 581.547,49 eurotan, BEZa barne.

## NEKAZARITZA SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 698/2021 Erabakia, azaroaren 16koa. Baiestea Kontseiluaren abuztuaren 3ko 496/2021 Erabakiaren aurka jarritako berraztertze errekurtsoa. (Esp.: 01-2021-5460).

#### INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 699/2021 Erabakia, azaroaren 16koa. Onestea Excavaciones Mendiola SA enpresari adjudikatzea Arabako Lurralde Historikoan kontrolik gabeko zaborte-gien isurketaguneak ezabatzeko, zigilatze eta zaharberritzeko lanak. Aurrekontua, gehienez: 264.990,00 euro (BEZa barne); gauzatzeko epea: 10 hilabete.